

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

7155

217/2008 DEKRETUA, abenduaren 23koa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzkoa.

Beharrezkoa da legezko nahiz erregelamenduzko arauak eta administrazio-egintzak argitaratzea (azken horiek prozedura zehatz batek eskatzen badu edo interes orokorreko arrazoik badaude), arauak eraginkorras izango badira eta segurtasun juridikoaren printzipioa bermatuko bada. Halaxe dago ezarrita Autonomia Estatutuaren 27.5 artikuluan, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikuluan eta, oro har, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen araudian.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria irailaren 13ko 193/1982 Dekretuak arautu zuen aurrenekoz. Gero, azaroaren 23ko 296/1988 Dekretuak berriro arautu zuen aldizkaria, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko araugintza nabarmen hazi zelako. Ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuak -dekreto honek indargabetzen duenak- aldizkari ofizialaren egitura argiago eta eraginkorragoa ezarri zuen; eta argitalpen-lanak sinpletu zituen, argitalpen-prozesuan bitarteko informatikoak jarrita.

Ordutik hona ez da aldatu 155/1993 Dekretua. Baina denborak aurrera egin du, eta aldaketa teknologikoek, bitarteko informatikoen garapenak, informazioaren teknologia berrien erabilera orokortu izanak eta zerbitzu publikoetan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak ezarri izanak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria berriro arautzea eskatzen du. Araudi berriak optimizatu egingo ditu ekoizpen-prozesuak, eta ahalbidetu egingo erkidegoko araudia herritar gehiagok ezagutu ahal izatea.

Aldizkari ofiziala paperezko euskarrian argitaratu da orain arte, baina badira urte batzuk Eusko Jaurlaritzaren web orrian ere argitaratzen hasi zela. Gaur egun, aldizkari ofiziala berme osoarekin formatu elektronikoan argitaratzea posible dela eta beharrezko dela uste da, ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 11.1 artikuluan eta abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuan jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta (11/2007 Legea, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzkoa; 232/2007 Dekretua, administrazio-prozeduratan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematiko-en erabilera arautzekoa). Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikot sartu ahal izango da aldizkariaren edizio elektronikora.

Disposiciones Generales

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

7155

DECRETO 217/2008, 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco.

La publicidad de las normas, tanto legales como reglamentarias, y de los actos administrativos cuando lo exija un determinado procedimiento o lo aconsejen razones de interés público, es requisito para la eficacia de las normas y garantía del principio de seguridad jurídica. Así lo dispone el artículo 27.5 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco; el artículo 64 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno y, en general, la regulación del régimen jurídico de las Administraciones públicas y del procedimiento administrativo común.

El Boletín Oficial del País Vasco se reguló por primera vez mediante Decreto 193/1982, de 13 de septiembre. Posteriormente, el Decreto 296/1988, de 23 de noviembre instauró una nueva regulación que hizo frente al notable incremento de la actividad normativa de la Comunidad Autónoma. El Decreto 155/1993, de 1 de junio, que se deroga mediante el presente Decreto, introdujo una estructura más clara y operativa en el boletín oficial, simplificando, al mismo tiempo, las tareas de edición mediante la utilización de los medios informáticos en el proceso de edición.

Desde entonces no se han producido modificaciones en aquella norma. Con el paso del tiempo, los cambios tecnológicos, el desarrollo experimentado por las herramientas informáticas, la generalización del uso de las nuevas tecnologías de la información y la implantación de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en la prestación de los servicios públicos aconsejan abordar una nueva regulación del Boletín Oficial del País Vasco. La nueva normativa optimizará los procesos de producción y permitirá una mayor difusión y aproximación de la normativa autonómica a la ciudadanía.

Hasta el momento actual el boletín oficial ha venido publicándose en soporte papel, si bien desde hace tiempo ya se difunde a través de la página web del Gobierno Vasco. En estos momentos, en el marco de las previsiones contenidas en el artículo 11.1 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos y en el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos, se estima posible y necesario realizar la publicación del boletín oficial en formato electrónico, con las garantías necesarias, accesible desde la sede electrónica del Gobierno Vasco.

I. kapituluan balio juridiko osoa, benetakotasuna eta ofizialtasuna aitortzen zaio Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren edizio elektronikoari. Herritar oro sartu ahal izango da bertara, internet bidez. Bestalde, sinadura elektroniko aitortua izango du edizio elektronikoak.

II. Kapitula aldizkari ofizialaren eduki eta egiturari buruzkoa da: egitura eguneraztzen da, eta bereziki, aldizkariaren formatua arautzen da, ezarriko den edizio elektronikora egokitu ahal izateko.

III. kapituluan dokumentuak argitaratzeko prozedura arautzen da: modu telematikoan bidali beharko dira dokumentuak aldizkari ofizialera; horretarako, sinadura elektroniko aitortua erabili beharko da, Administrazioaren eta herritarren ekintzen benetakotasuna eta osotusa bermatuko duen bitartekoa izango baita.

Kapitulu horretan bertan zehazten dira argitaratzeko bidaltzen diren dokumentuek forma aldetik zein baldintza bete behar dituzten. Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialako edozeinetan bidali ahal izango dira dokumentuak. Halaber, konfidentialtasunaren bermea ezartzen da, bai eta argitaratzeko, akatsak zuzentzeko, argitalpena ukatzeko eta argitalpeneko hutsak zuzentzeko prozedura ere. Eta, azkenik, aldizkari ofizialeko datu informatikoak eta fitxategiak babesteko bermea ezartzen da.

IV. kapituluan xedatzen da subjektu pasiboak nola ordaindu behar duen aldizkarian dokumentuak argitaratzeko tasa (autoliquidazioaren eta aldez aurreko ordainketaren bidez), betiere, kontuan hartuta bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoa.

Aldizkari ofiziala www.lehendakariordetza.ejgv.net egoitza elektronikoaren bidez zabalduko dela ere xedatzen da. Halaber, berdintasun-printzipioa eraginkorra izan dadin, bulego publiko zenbaitetatik aldizkarira sartzeko aukera emango dela xedatzen da, eta herritar orok aldizkari ofizialaren edizio elektronikoaren kopia paperezko euskarrian lortzeko aukera izango duela ere bai.

Azken xedapenak aldizkari ofiziala zabaltzeko egoitza elektronikoa agindu bidez aldatzeko baimena ematen dio Lehendakariordetzari.

Lehenengo xedapen iragankorrak argitaratzeko eska-bideak aurkezteko prozedura aurreikusten du; prozedura hori erabiliko da, harik eta Jaurlaritzaren lehendakariordeak hori arautuko duen agindua eman arte.

Bigarren xedapen iragankorrak adierazten du dokumentuak argitaratzeko tasaren ordaintketa nola kudeatuko den, harik eta sistema informatikoa egokitu arte.

Xedapen indargabetzaileak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen ekainaren 1eko 155/1993 Dekretua indargabetza aurreikusten du, baita, maila berekoa nahiz txikiagokoa izanik, dekretu honen aurka egiten duen beste edozein xedapen ere.

El Capítulo I dota de plena validez jurídica y de autenticidad y oficialidad a la edición electrónica del Boletín Oficial del País Vasco, libremente accesible por Internet a toda la ciudadanía, la cual incorpora el sistema de firma electrónica reconocida.

El Capítulo II, dedicado al contenido y estructura del boletín oficial, actualiza la estructura, en especial, la regulación del formato del boletín para adaptarlo a la edición electrónica que se instaura.

El Capítulo III regula el procedimiento de publicación de documentos, cuya remisión al boletín oficial se deberá realizar de forma telemática, utilizando el sistema de firma electrónica reconocida como instrumento que garantizará la autenticidad e integridad de las actuaciones, tanto de la Administración como de la ciudadanía.

Asimismo, en dicho Capítulo se determinan los requisitos formales de los documentos que se remitan a publicar, los cuales podrán enviarse en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma. De igual forma, se establece la garantía de confidencialidad, y el procedimiento de edición, subsanación, denegación, subsanación de errores en la publicación y, en último lugar, las garantías de conservación de los datos informáticos y ficheros que integran el boletín oficial.

En el Capítulo IV se dispone la sujeción del pago de la tasa por la inserción de documentos al régimen de autoliquidación y al previo pago por el sujeto pasivo, sin perjuicio de la previsión contenida en la disposición transitoria segunda.

En cuanto a la distribución del boletín oficial, se dispone su difusión a través de la sede electrónica www.lehendakariordetza.ejgv.euskadi.net. Asimismo, y para dar cumplimiento eficaz al principio de igualdad, se disponen puntos de acceso en oficinas públicas, así como, la posibilidad, al alcance de todos los ciudadanos y ciudadanas, de obtener copia impresa en papel de la edición electrónica del boletín oficial.

La disposición final autoriza a la Vicepresidenta para modificar, mediante Orden, la sede electrónica a través de la cual se difunde el boletín oficial.

La disposición transitoria primera prevé el procedimiento de presentación de solicitudes de publicación hasta que se dicte la Orden de la Vicepresidenta del Gobierno que regule el mismo.

La disposición transitoria segunda contempla el régimen transitorio de gestión del pago de la tasa por la inserción de documentos hasta la adaptación del sistema informático.

La disposición derogatoria prevé la derogación del Decreto 155/1993, de 1 de junio, sobre el Boletín Oficial del País Vasco, y de todas las disposiciones de igual o inferior rango que opongan a este Decreto.

Azkenik, azken xedapenetan ondoko hauek sartzen dira: argitaratzeko dokumentuak modu telematikoan bidaltzeko prozedura arautuko duen agindua -Jaurlitzaren lehendakariordearena- onartzeko manua, arauak garatzeko egindako aurreikuspena eta dekretua indarren arabera ezarriko diren eguna (2009ko urtarrilaren 1a).

Hori dela eta, lehendakariodearen proposamenez, eta Jaurlitzaren Kontseiluak erabaki eta onartu eta gero, 2008ko abenduaren 23an burututako bilkuran

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Definizioa.

1.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria Euskal Autonomia Erkidegoko aldizkari ofiziala da, eta bertan, segurtasun juridikoko eta arauen publizitateko konstituzio-printzipioei jarraiki, argitalpen ofiziala behar duten dokumentuak argitaratuko dira, betiere, ordenamendu juridikoaren arabera.

2.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria zerbitzu publikoa da, unibertsala eta doakoa. Eta bertara sartzen denak bermatua du aldizkarian argitaratzen diren dokumentuak bilatu, konsultatu, artxibatu eta inprimatzeko aukera.

2. artikulua.- Eskumenak.

1.– Jaurlitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari dagokio Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria editatzea, argitaratzea eta zabaltzea, bai eta aldizkariaren eskubide ekonomikoak kudeatzea ere.

2.– Halaber, Jaurlitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren egittekoak dira ondoko hauek ere:

a) Aldizkari ofizialaren benetakotasuna, osotasuna eta aldaezintasuna bermatzea.

b) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren edizio elektronikoa zaintza eta babestea.

c) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren edizio elektronikora sartzen aukera bermatzea eta edizio elektronikoa aurrerapen teknologikoetara etengabe egokitzea.

3. artikulua.- Edizio elektronikoa.

1.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria edizio elektronikoan argitaratuko da, eta www.lehendakariordeza.ejgv.euskadi.net egoitza elektronikoaren bitartez zabalduko da.

2.– Edizio elektronikoan argitaratutako dokumentuak ofizialak eta benetakoak izango dira, eta dekretu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 11. artikuluaren arabera ezarriko diren arau eta baldintzak beteko

Por último, las disposiciones finales incluyen el mandato para la aprobación de la Orden de la Vicepresidenta del Gobierno que regulará el procedimiento de remisión telemática de los documentos a publicar, la previsión de desarrollo normativo, y su entrada en vigor que se producirá el día 1 de enero de 2009.

En su virtud, a propuesta de la Vicepresidenta, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 23 de diciembre de 2008,

DISPONGO:

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Definición.

1.– El Boletín Oficial del País Vasco es el diario oficial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del cual se da publicidad a los documentos que, en virtud de los principios constitucionales de publicidad de las normas y de seguridad jurídica, deban ser objeto de publicación oficial, de acuerdo con el ordenamiento jurídico.

2.– El Boletín Oficial del País Vasco se configura como un servicio público de acceso universal y gratuito. Dicho acceso garantiza la posibilidad de búsqueda, consulta, archivo e impresión de los documentos que se publican en el mismo.

Artículo 2.- Competencias.

1.– Las funciones de edición, publicación y difusión, así como la gestión de los derechos económicos del Boletín Oficial del País Vasco corresponden a la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

2.– Asimismo, a la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento le corresponde:

a) Garantizar la autenticidad, integridad e inalterabilidad del diario oficial.

b) Velar por la custodia y conservación de la edición electrónica del Boletín Oficial del País Vasco.

c) Velar por la accesibilidad de la edición electrónica del Boletín Oficial del País Vasco y su permanente adaptación al progreso tecnológico.

Artículo 3.- Edición electrónica.

1.– El Boletín Oficial del País Vasco se publica en edición electrónica, y se difunde a través de la sede electrónica www.lehendakariordeza.ejgv.euskadi.net.

2.– Los documentos publicados en la edición electrónica tienen la consideración de oficiales y auténticos, con arreglo a las normas y condiciones que se establecen en el presente Decreto, de conformidad con lo es-

dituzte (11/2007 Legea, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzkoa).

3.- Edizio elektronikoak bakarrik bermatuko du argitalpenen benetakotasuna eta balio juridikoa; horregatik, euskarri fisikoa duten edizio edo erreprodukzioak edizio elektroniko horretatik aterako dira.

4.- Edizio elektronikoak aukera emango du, une oro eta doan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren edukia konsultatzeko eta kopia bat inprimatzeko.

5.- Abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuari jarraiki, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak sinadura elektroniko aitortua erabiliko du aldizkariaren edukiaren benetakotasuna, batasuna eta aldaezintasuna bermatzeko (232/2007 Dekretua, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzehoa).

6.- Egoitza elektronikoan argitaratuko dira artikulu honetan aurreikusitakoa eraginkorra izateko beharrezkoak diren jarduerak eta prozedurak.

7.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren edizio elektronikoa jarraipen-printzipoari lotuko zaio. Nolanahi ere, arazo tekniko larriez egoitza elektronikoaren edo sistema informatikoaren funtzionamenduari eragiten badiote, eta Aldizkariaren edizio elektronikora sartzea edo argitaratutako dokumentuen benetakotasuna eta osotasuna egiaztatzea eragozten badute, Jaurlitzaren lehendakariordeak aldizkariaren kopiak paperreko euskarrian argitaratzeko baimena emango du, eta horrela argitaratutako kopiak ofizialak izango dira.

4. artikulua.- Aldizkakotasuna.

1.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria urteko egun guztietan argitaratuko da, larunbatetan, igandean eta, Jaurlitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren egoitza dagoen udalerrian, baliogabe deklaratutako egunetan izan ezik.

2.- Argitalpen-beharrak direla-eta, Jaurlitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak agindu dezake aldizkari ofiziala urteko beste edozein egunetan argitaratzea, hala nola egun jakin batean ez argitaratzea ere.

5. artikulua.- Hizkuntza ofizialak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko da, aldi berean. Bi bertsioak ofizialak eta benetakoak izango dira, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legean eta hora garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

6. artikulua.- Guztientzako sarbidea.

Aldizkariaren edizio elektronikoak beharrezko baldintzak beteko ditu, konsulta egin nahi duten minuskuatu eta adinekoak bertara sartu ahal izateko.

tablecido en el artículo 11 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos.

3.- Las ediciones o reproducciones en soportes físicos derivan de la edición electrónica, que es la única garante de la autenticidad y la validez jurídica de la publicación.

4.- La edición electrónica permite consultar e imprimir copias del contenido del Boletín Oficial del País Vasco, en cualquier momento y de forma gratuita.

5.- La edición electrónica del Boletín Oficial del País Vasco incorpora firma electrónica reconocida como garantía de la autenticidad, integridad e inalterabilidad de su contenido, de conformidad con el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos.

6.- En la sede electrónica se publicarán las prácticas y procedimientos necesarios para la efectividad de lo previsto en este artículo.

7.- La edición electrónica del Boletín Oficial del País Vasco está sometida al principio de continuidad. No obstante, en el caso de incidencias técnicas de carácter grave que afecten al funcionamiento de la sede electrónica o del sistema informático que impidan el acceso telemático a la edición electrónica del Boletín Oficial del País Vasco o la acreditación de la autenticidad e integridad de los documentos publicados, la Vicepresidenta del Gobierno podrá autorizar la edición de copias del mismo en soporte papel, con carácter oficial.

Artículo 4.- Periodicidad.

1.- El Boletín Oficial del País Vasco se publica todos los días del año, excepto los sábados, domingos y los días declarados inhábiles en el municipio donde radica la sede de la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

2.- Por necesidades sobrevenidas, el Director o la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento puede ordenar la publicación del boletín oficial cualquier otro día del año, así como su no publicación en un día determinado.

Artículo 5.- Lenguas oficiales.

El Boletín Oficial del País Vasco se publica simultáneamente en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, teniendo ambas versiones la consideración de oficiales y auténticas, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera y en la normativa de desarrollo.

Artículo 6.- Accesibilidad.

La edición electrónica del boletín oficial tiene las condiciones de accesibilidad necesarias para su consulta por las personas con discapacidad o de edad avanzada.

II. KAPITULUA EDUKIA ETA EGITURA

7. artikulua.— Edukia.

1.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako hauek argitaratuko dira:

- a) Eusko Legebiltzarreko Legeak.
 - b) Eusko Jaurlaritzak ematen dituen lege-mailako arauak; Eusko Jaurlaritzak eta bere organoek emandako errejelamenduko arauak; eta Eusko Jaurlaritzak eta bere organoek emandako administrazio-ebazpenak, baldin eta, indarreko arauak bat etorriz, argitaratu egin badira.
 - c) Beste organo eta instituzio batzuek emandako errejelamenduzko arau, ebaZen eta erabakiak, baita partikularrek argitaratu nahi dituzten iragarkiak ere, betiere, indarrean dagoen ordenamenduan oinarrituta.
- 2.— Jaurlaritzaren Kontseiluak, bestalde, interes orokorrekoak diren erabaki, txosten, agiri edo jakinarazpen ofizialak argitaratzea baimendu dezake.

8. artikulua.— Egitura.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren edukia honako atal hauetan banatuko da:

I. atala.— Xedapen Orokorrak. Eusko Legebiltzarreko legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administracioko beste organo eta erakunde batzuek emandako lege-mailako eta errejelamenduzko arauak sartuko dira atal honetan.

II. atala.— Agintariak eta Langileak. Hiru azpiatal izango ditu atal honek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administracioko goi-kargudunen eta langileen izendapenak, egoerak eta gorabeherak.

b) Oposizioak eta Lehiaketak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administracion eta EAEko beste herri administracio batzueta hautaprobaZ egiteko eta lanpostuak betetzeko deialdiak, eta horietan sortzen diren gorabeherak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administracioetako langileak prestatzeko eta trebatzeko ikastaroak.

III. atala.— Bestelako Xedapenak. Argitaratu beharrekoak izan arren, lege-mailako edo errejelamenduzko arauaren arabera orokorrak ez diren eta gainerako atalei ez dagozkien xedapenak sartuko dira atal honetan.

IV. atala.— Justizia Administrazioa. Epaitegi eta auzitegiak ediktuaZ eta iragarkiak sartuko dira atal honetan.

V. atala.— Iragarkiak. Hiru azpiatal izango ditu atal honek:

- a) Enkanteak eta Lehiaketak.
- b) Bestelako Iragarki Ofizialak.

CAPÍTULO II CONTENIDO Y ESTRUCTURA

Artículo 7.— Contenido.

- 1.— En el Boletín Oficial del País Vasco se publican:
 - a) Las leyes del Parlamento Vasco.
 - b) Las normas con rango de ley y reglamentarias adoptadas por el Gobierno Vasco y, en su caso, por sus órganos, así como sus resoluciones administrativas, cuando deban ser objeto de publicación de acuerdo con la normativa aplicable.
 - c) Las normas reglamentarias, resoluciones y acuerdos adoptados por otros órganos e instituciones y los anuncios de particulares que hayan ser objeto de publicación, todo ello en razón del ordenamiento vigente.

2.— Asimismo, el Consejo de Gobierno puede autorizar la publicación de acuerdos, informes, documentos o comunicaciones oficiales, cuya publicación sea considerada de interés general.

Artículo 8.— Estructura.

El contenido del Boletín Oficial del País Vasco se distribuye en las siguientes secciones:

Sección I.— Disposiciones Generales. Incluye las leyes del Parlamento Vasco, así como las normas con rango de ley y reglamentarias emanadas de otros órganos e instituciones de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Sección II.— Autoridades y Personal. Consta de tres subsecciones:

a) Nombramientos, situaciones e incidencias de altos cargos y personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma.

b) Oposiciones y concursos, que incluirá las convocatorias e incidencias relativas a pruebas selectivas y provisión de puestos de trabajo de la Administración de la Comunidad Autónoma y de otras administraciones públicas vascas.

c) Cursos de formación y perfeccionamiento del personal al servicio de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Sección III.— Otras Disposiciones. Incluye aquéllas que, siendo de obligada publicación, conforme a norma con rango de ley o reglamentaria, no tienen carácter general ni corresponden a las demás secciones.

Sección IV.— Administración de Justicia. Incluye los edictos y anuncios de los juzgados y tribunales.

Sección V.— Anuncios. Se agrupan en tres subsecciones:

- a) Subastas y concursos.
- b) Otros anuncios oficiales.

c) Partikularren Iragarkiak.

9. artikulua.- Dokumentuen hurrenkeria.

1.- Atal eta azpiatal bakoitzean -IV. atalean izan ezik- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren dokumentuak argitaratu behar direnean, dokumentua bidali duen organoa izango da kontuan, aurrekotasunaren arabera.

2.- Sail edo erakunde bakoitzari buruzko xedapenak arau- eta administrazio-hierarkiaren araberako hurrenkeran argitaratuko dira, eta hierarkia-maila berbera iza- nez gero, egunaren eta zenbakiaren arabera antolatuko dira.

3.- Dokumentuek idazpurua izango dute, atal eta azpiatal guztietan.

4.- II. atalean (Agintariak eta Langileak), III. atalean (Bestelako Xedapenak), IV. atalean (Justicia Administratioa) eta V. atalean (Iragarkiak) txertatzen diren ebazpenak eta egintzak laburbilduta argitaratuko dira, baldin eta hori posible bada eta kasu bakoitzean eskatutako baldintzak betetzen badira.

Erakundeek behar bezala laburbilduta bidaliko dituzte modu horretan argitaratzekoak diren testu eta dokumentuak.

10. artikulua.- Formatua.

1.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren argitalpen bakoitzak hurrenez hurrengo zenbakia izango du. Ale bakoitzaren goialdean honako hauek agertuko dira: Autonomia Erkidegoaren armaria, «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria» izena, argitalpen-eguna eta aldizkariaren zenbakia, urte bakoitzaren hasieratik aurrera zenbatzen hasiko dena.

2.- Gainerako orrialdeetan aldizkari ofizialaren ize- na, argitalpen-eguna eta aldizkariaren zenbakia jarriko dira, baita dagokion orrialdearen zenbakia ere.

3.- Ale bakoitzak laburpen bat izango du, eta bertan dokumentuen idazpuruak jasoko dira, dokumentuen zenbakia adierazita.

4.- Argitaratutako dokumentu bakoitzak orrialde bati emango dio hasiera, eta dokumentu bakoitzak bere zenbakia izango du.

III. KAPITULUA ARGITARATZEKO PROZEDURA

11. artikulua.- Argitaratzeko agindua emateko eskumena.

1.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko bidaltzen diren dokumentuei argitalpen-baimena erantsi behar zaie; sinadura elektronikoa izan behar du baimenak, hain zuzen ere, horretarako gaituta dagoenarena.

c) Anuncios particulares.

Artículo 9.- Ordenación de los documentos.

1.- Dentro de cada sección y subsección, excepto en la sección IV, el orden de inserción de los documentos que emanen de la Administración de la Comunidad Autónoma se realiza en razón del órgano del que procedan, conforme a su respectiva precedencia.

2.- Las disposiciones relativas a cada departamento u organismo se insertan siguiendo el orden de jerarquía normativa o administrativa y, si coincide el rango jerárquico, se ordenan por fecha y número, en su caso.

3.- Dentro de cada sección y subsección los documentos se encabezan por el correspondiente título.

4.- Las resoluciones y actos comprendidos en las secciones II (Autoridades y Personal), III (Otras Disposiciones), IV (Administración de Justicia) y V (Anuncios) se publican en extracto, siempre que sea posible y reúnan los requisitos exigidos en cada caso.

Los organismos remitentes enviarán debidamente extractados los textos y documentos susceptibles de ser publicados en esta forma.

Artículo 10.- Formato.

1.- El Boletín Oficial del País Vasco se numera de forma correlativa a su publicación. En la cabecera de cada uno de sus números figura el escudo de la Comunidad Autónoma, la denominación «Boletín Oficial del País Vasco», la fecha de publicación y el número de boletín, que es correlativo desde el comienzo de cada año.

2.- En todas las páginas siguientes se inserta la denominación del boletín oficial, la fecha de publicación y el número de boletín. Igualmente, se inserta el número de página que corresponde.

3.- Cada número tiene un sumario en el que se recoge el título de cada uno de los documentos que lo integran, con mención del número de orden del documento.

4.- Cada uno de los documentos publicados inician página y figuran numerados de manera individual.

CAPÍTULO III PROCEDIMIENTO DE PUBLICACIÓN

Artículo 11.- Facultad de ordenar la inserción.

1.- Los documentos que se envíen para su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco adjuntarán una autorización de inserción, firmada electrónicamente por la persona que esté facultada para ello.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan argitaratzeko agindua emateko eskumena ondoko agintariekin edo horien ordezkoek izango dute:

a) Jaurlaritzaren idazkariak, legeak eta lege-mailako arauak izanez gero.

b) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak, erregelamenduzko arauak, administracio-egintzak eta lehendakariaren edo Jaurlaritzaren erabakiak izanez gero, edo sail batek baino gehiagok elkarrekin emandako xedapenak izanez gero.

c) Sailburuek, zerbitzu-zuzendariek edo antzeko organoek, euren sailei dagozkien eskumenen alorrean emandako erregelamenduzko arauak eta administracio-egintzak izanez gero.

3.- Beste organo, instituzio edo erakunde batzuatik datozen erregelamenduzko arauak, ebazpen/erabakiak eta iragarkiak argitaratzeko baimena emango dute, barne-funtzionamendurako dituzten arauen arabera, hartarako eskumena aitortua edo baimena dutenen edo baimenduak izan direnek, edo, halakorik ez badago, horiek ordezkatzen dituztenek.

4.- Argitaratzeko eskabidea egiten duena da argitaratzeko bidali duen dokumentuaren egiazkotasun eta benetakotasunaren erantzule.

12. artikulua.- Argitaratzeko eskabidea.

1.- Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari bidali behar zaio argitaratzeko eskabidea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko dokumentuekin eta argitalpen-baimenarekin batera.

2.- Argitaratzeko eskabidea www.lehendakariordetza.ejgv.euskadi.net egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri, eta komunikazio-sistema ziurra dela bermatuko da. Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak aurrez baimendutako erabiltzaileak bakarrik sartu ahal izango dira egoitza elektronikoan. Erabiltzaileak identifikatzeko eta dokumentuak kautotzeko, sinadura elektroniko aitortua erabiliko da. Jaurlaritzaren lehendakarioordeak agindua emango du dokumentuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko procedura eta bermeak ezartzeko.

3.- Dokumentu bat epe edo egun jakin batean argitaratzeko legezko arrazoiren bat edo arrazoi justifikaturen bat baldin badago, argitaratzeko eskabidean jaso beharko da hori.

4.- Dokumentua bidaltzen duen erakundeak eskabidean adieraziko du derrigorrez argitaratu beharrekoa dela xedatzen duen araua zein den.

5.- Argitaratzeko bidaltzen diren dokumentu elektronikoek banatuta eduki behar dituzte euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak, baldin eta bi hizkuntzetan badatoz.

2.- La facultad para autorizar la inserción en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco se atribuye a las siguientes autoridades o sus suplentes:

a) A la Secretaría o al Secretario del Gobierno, para las leyes y normas con rango de ley.

b) Al Director o a la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, para las normas reglamentarias, actos administrativos y acuerdos del Lehendakari y del Gobierno, y para las disposiciones dictadas conjuntamente por varios departamentos.

c) A los consejeros o a las consejeras y directores o directoras de servicio u órganos análogos para las normas reglamentarias y actos administrativos dictados en el ámbito de competencia de sus departamentos.

3.- La autorización de inserción de las normas reglamentarias, resoluciones y acuerdos, así como los anuncios emanados de otros órganos, instituciones o entidades se realiza por quienes tengan atribuida dicha facultad o tengan autorización para ello, conforme a sus propias normas internas de funcionamiento o, en su defecto, por quienes tengan conferida la representación de los mismos.

